

MUSIKA ETA FOLKLOREAREN HISTORIA

Azterketa

1998. urtea

EHU / UPV



Gizapedia

gizapedia.org

MUSIKA ETA FOLKLOREAREN

HISTORIA

Azterketa (1998ko Iraila)

1.-Jarraian agertzen diren baieztapenen artean, baten bat txarto badago esan: *Bilinbili bonbolo abestia euskal tradiziozko danta da, beraz*

- a) Ahozko tradizioz kontserbatua da
- b) Sehaska kanta bat da, beraz funtzio bat betetzen du
- c) Musika-tresnarik ez dago
- d) Euskeraz kantatzen da
- e) Erantzun guztiak ondo daude

2.-*Bilinbili bonbolo* abestiak betetzen dituen ezaugarriak aukeratu:

- a) Erritmo bitarra, anbito estua, modu minorra
- b) Erritmo hirutarra, anbito zabala, modu minorra
- c) Erritmo bitarra, anbito zabala, modu maiorra
- d) Erritmo hirutarra, anbito zabala, modu maiorra
- e) Erritmo bitarra, anbito zabala, modu minorra

3.-Entzun duzun 2. adibide musikala:

- a) Opera bateko aria da
- b) Musika erlijiosoaren zati bat
- c) *Lied* bat da
- d) Poema sinfoniko bat da
- e) Errezitativo bat da

4.-2. adibide musikala: estiloaren arabera, kokatu obra hau.

- a) Klasizismoan
- b) Erromantizismoan
- c) Nazionalismoan
- d) XX. mendeko lehen erdialdean
- e) Musika garaikidea da

5.-2. adibide musikala: zein da obran azaltzen den forma musikala?

- a) *Rondoa*
- b) *Canona*
- c) *Lied*
- d) Abesti estrofikoa
- e) Ez du, bereziki, forma ezagun bat erabiltzen

6.-3. adibide musikala: kokatu garai musikala baten barruan.

- a) Erdi Aroko polifonia erlijiosoa
- b) Erdi Aroko polifonia profanoa
- c) Errenazimentua
- d) Barrokoa
- e) Klasizismoa

7.-3. adibide musikala: erabiltzen den testura musikala adierazi.

- a) Monofonikoa
- b) Kontrapuntistikoa
- c) Homofonikoa
- d) Harmonikoa
- e) Monodikoa

8.-3. adibide musikala:

- a) Elizako musika da
- b) Gorteetako musika da
- c) Trobalaritzaren barruan kokatzen den Ama Birjinari zuzendutako kanta da
- d) Lehenengo garaiko operaren zati bat da
- e) a eta c

9.-Ahozko tradiziozko musikan:

- a) Egilea herri bateko folklorea oinarritzen da musika konposatzeko
- b) Egilearen irudiak ez du garrantzirik
- c) Egilea nongoa den kontuan hartzen da
- d) Herria, bera, egile bezala azaltzen da
- ☒ e) b eta d galderak batera eman behar dira

10.-Non kokatzen da Etnomusikologia Zientziaren sorrera?

- a) XVIII. mendeko bukaeran
- b) XIX. mendeko hasieran
- c) XIX. mendeko erdialdean
- ☒ d) XIX. mendeko bukaeran
- e) XX. mendeko hasieran

11.-Gaur egun, euskal ahazko tradiziozko kanta:

- a) Gure aurrekoek kantatzen zituzten bezala kontserbatzen dira
- b) Kantutegietan agertzen dira guztiak bilduta
- c) Desagertu dira
- ☒ d) Aldatzen joan dira
- e) a eta b galderak baera erantzun zuzena da

12.-Folklorismoa

- a) eta folklorea kontzeptu berdinak dira
- b) Gaur egungo folkloreaki deitzen zaio
- c) Folklorea idazten denetik sortzen da
- ☒ d) Produktu folklorikoa bere testuingurutik kanpo ateratzen du
- e) Folklorearen jarraipen eta imitazio bat da

13.-Ahozko tradiziozko musikan

- a) Gizakiaren testuinguruak garrantzi handia du
- b) Musikariak musika-formazioa du
- c) Aurrekoengandik ikasitako musika ematen da
- d) a eta b elkarrekin erantzun zuzena da
- ☒ e) a eta c elkarrekin erantzun zuzena da

14.-Folklore musikala eta musika popularra gauza bera da

- a) Biak, ahozko tradizioz mantentzen direlako
- b) Herriak erabiltzen dituen musikak direlako
- c) Idazten ez diren musikak direlako
- ☒ d) Ez dira berdina
- e) a eta b galderak batera erantzun zuzena da

15.-Etnomusikologian

- a) Ekialdeko musikak ikertzen dira bakarrik
- b) Kultura musikalki bateko alde musikala kontuan hartzen da bakarrik
- ☒ c) Musika aztertzeko testuinguruak garrantzi handia du
- d) Testuinguruak ez du garrantzia handirik musika ikertzerakoan
- e) Mendebaldeko musika ez da ikertzen ahozko tradiziozko musikarik ez delako aurkitzen

16.-Musikaren elementuak:

- a) Altuera, iraupena, intentsitatea eta tinbrea dira
- ☒ b) Melodia, erritmoa eta harmonia dira
- c) a eta b galderak batera erantzun zuzena da
- d) Forma, jenero eta textura dira
- e) a, b eta d galderak batera erantzun zuzena da

17.-Aurretik erabakitako arau edo oinarriak kontuan hartuz egindako obra musikalaren antolaketa da. Definizio honekin

- ☒ a) Forma definitzen ari gara
- b) Musika-jeneroa definitzen ari gara
- c) Estilo musikala definitzen ari gara
- d) Aurreko kontzeptu guztiak batera definitzen ari gara
- e) Beste kontzeptu bat definitzen ari gara: (aipatu zein)

18.-Maila edo garrantzi berdineko melodia ezberdinek batera soinu egiten dutenean, zein textura mota definitzen ari gara?

- a) Monofonikoa
- b) Ez melodikoa
- ☒ c) Polifonikoa
- d) Harmonikoa
- e) Azkenengo biak batera

19.-Musika modala dela esaten dugu

- a) Modu maiorra edo minorrean oinarritzen denean
- b) Tonalitatearekin zer ikusirik ez duenean
- ☒ c) Erdi Aroko modu gregorianoetan oinarritzen denean
- d) Mende honetako musika denean
- e) Abangardiako musika denean

20.-Tonalitatea noiz finkatzen da?

- a) Errenazimentuan
- b) Barrokoan
- ☒ c) Klasizismoan
- d) Erromantizismoan
- e) Nazionalismo musikarekin

21.-Sistema diatonikoa

- a) Tonalitatean oinarritzen den sistema da
- b) 7 nota dituen eskala diatonikoetan oinarritzen da
- c) eskala modalekin osatzen da
- ☒ d) bost tonu eta bi tonuerdiz osatutako zazpi noten eskaletan oinarritzen da
- e) a eta b galderak batera erantzun zuzena da

22.-Sonata formarekin ezagutzen dituzun forma musikalak esan.

- a) Sonata, sinfonia eta *lied*
- b) Sonata, suitea eta sinfonia
- c) Sonata, *concerto grosso* eta sinfonia
- d) Sonata kontzertua eta suitea
- ☒ e) Sonata, kontzertua eta sinfonia

23.-Zein texturatan idazten da fuga bat?

- ☒ a) Estilo polifonikoan
- b) Estiko monofonikoan
- c) Estilo homofonikoan
- d) Estiko harmonikoan
- e) Textura ezberdinetan idatz daiteke

24.-Jarraian aipatzen diren musika-generoen artean, ahotsetarako ez dena esan.

- a) Lied
- ☒ b) Poema sinfonikoa
- c) Madrigala
- d) Pasioa
- e) Guztiak dira ahotsetarako musika

25.-Idazkera horizontala.

- a) Textura monofoniko eta homofonikoan ematen da
- b) Textura polifoniko eta harmonikoan ematen da
- ☒ c) Textura polifoniko edo kontrapuntistikoan ematen da
- d) Textura ez melodiko eta homofonikoetan
- e) Beti ematen da

26.-Mendebaldeko Erdi Aroko musikaren sustraiak non kokatzen dira?

- a) Kristautasunaren sorreretan
- b) Eliza Katolikoaren jaiotzarekin batera
- c) San Gregorio aita santuak egindako lanetan
- d) Erromatarren Inperioaren desagertzearekin
- e) Erdi aroko hasieran

27.-Ondoko baieztapen hauen artean txarto dagoena esan: *San Benitoren irudia oso garrantzitsua da*

- a) San Gregorio bezela Elizako kantuak landu zituelako
- ☒ b) Ofizioa eta Meza asmatu zituelako
- c) Monastegi barruko bizitza antolatu zuelako
- d) San Benitoren Erregela asmatu zuelako
- e) Eguna, kantuen arabera, ordu ezberdinetan sailkatu zuelako

28.-Musika gregorianoaren ezaugarriak ondoko hauen dira:

- a) Erritmo librea, melodia librea, monodikoa, musika erlijiosoa
- b) Musika erlijiosoa eta profanoa, erritmo librea, monodikoa, latinez idatzia
- c) Musika neurtua, melodia librea, musika erlijiosoa, latinez idatzia
- ☒ d) Erritmo librea, monodikoa, musika funtzionala, latinez idatzia
- e) Musika funtzionala, musika neurtua, monodikoa, latinez idatzia

29.-Erdi Aroko musikaren munduaren barruan ondoko izen hauek oso ezagunak dira:

- a) Leonin, Perotin, Guido d'Arezzo, Gesualdo eta Bernat de Ventadorn
- b) Leonin, Perotin, Guido d'Arezzo, Gesualdo eta Monteverdi
- c) Leonin, Perotin, Guido d'Arezzo, Franco de Colonia eta Bernat de Ventadorn
- d) Leonin, Perotin, Guido d'Arezzo, Gesualdo eta Franco de Colonia
- e) Guztiak dira Erdi Arokoak

30.-Mendebaldeko musika polifonikoa

- a) Erdi Arroan sortzen da musika profanoarekin
- b) Errenazimentuan sortzen da musika profanoaren
- ☒ c) Errepertorio gragorianoaren erabilpenarekin sortzen da Erdi Aroan
- d) Notazio musikaren sorrerarekin asmatzen da Erdi Aroan
- e) Erantzun guztiak txarto dute

31.-Trobalaritzaren fenomenoak

- a) Errenazimentuko hasieran eta Europa mailan ematen da
- b) Frantzia bakarrik garatzen den musika monodikoa da
- c) X-XI mendeen artean ematen den musika monodiko eta profanoa da
- ☒ d) XII-XIII mendeen artean ematen den musika da
- e) Erdi Aroan, musika erlijiosoaren aurka, sortzen den musika da

32.-Errenazimentuko musikaren ezaugarri aipagarriena aukeratu.

- ☒ a) Ahotsetarako polifonia erlijiosoa da nagusi
- b) Ahotsetarako polifonia profanoa da nagusi
- c) Instrumentuak baztertuak daude
- d) a eta b galderak batera
- e) b eta c galderak batera

33.-Errenazimentuko musikaren erreforma dela eta:

- a) Eliza katolikoa alde azaltzen da
- b) Eliza katolikoa erreformaren aurka azaltzen da
- c) Erreformaren ondorioz eliza zatitzen da
- d) a eta c galderak batera
- ☒ e) b eta c galderak batera

34.-Errenazimentuan sortzen diren Eskola garrantzitsuenetarikoa batzuk aukeratu.

- a) Franko-flandestarra, italiarra eta portugesa
- b) Espainiarra, italiarra eta portugesa
- ☒ c) Franko-flandestarra, italiarra eta espainiarra
- d) Franko-flandestarra, espainiarra eta portugesa
- e) Guztiak dira garrantzitsuak

35.-Errenazimentuko ahotsetarako polifonian erabiltzen den textura nagusia

- a) Estilo homofonikoa
- ☒ b) Estiko kontrapuntistikoa
- c) Estilo monofonikoa
- d) Estilo harmoniko
- e) Textura ez melodikoa, garrantzitsuen testua delako

36.-Noiz kokatzen duzu Barroko garaia?

- a) XVII-XVIII mendeen artean
- ☒ b) 1600urtetik 1750 urtera
- c) 1650 urtetik 1750 urtera
- d) XVII. mendean zehar
- e) Garatzen den leku ezberdinen arabera ezin da denboran mugatu

37.-Barrokoari dagozkion ondorengo baieztapenen artean baten bat txarto badago esan.

- a) Ahotsak eta instrumentuak garrantzizko maila berdinean daude
- b) Ahotsetarako forma berriak: opera, oratorioa, kantata
- ☒ c) Estilo polifonikoa da nagusi
- d) Orkestaren sorrera ematen da
- ☒ e) Guztiak dude ondo

38.-*Concertare* hitzaren esanahia honako hau da:

- a) Ahots guztien harmonia
- ☒ b) Ahotsen arteko kontrastea
- c) Kontzertua forma instrumental berria dela
- d) Bakarlaria dagoela
- e) Musika instrumentala dela

39.-Jarraian aurkezten diren baieztapenen artean txarto dagoena aipatu: *Barroko garaian sortzen diren forma instrumentalen artean*

- a) sonata sortzen da
- ☒ b) forma instrumental guztiek erabiltzen dute sonata forma
- c) sinfonia eta kontzertua sortzen dira
- d) obra konposatuak hiru mugimenduetan banatzen dira orokorrean
- e) korda laukotea oraindik ez da erabiltzen

40.-*Forma Sonata* honako egitura lantzen du:

- a) A B A (A zatian 2 gairekin)
- b) Aurkezpene, Garapene, Aurkezpene, Coda
- c) Aurkezpene (gai bat), Garapene, Berraurkezpene, Coda
- ☒ d) Aurkezpene (bi gai), Garapene, Berraurkezpene, Coda
- e) c eta d ondo daude gaiaren kopurua berdina delako

41.-Zeintzu dira Klasizismoko musikaren ezaugarriak?

- a) Musika purua egiten da
- b) Ilustrazio musikala, burgesiaren ideologia bezala, da oinarri
- c) Tonalitatea finkatzen da
- ☒ d) Aurreko hirurak elkarrekin
- e) a eta c galderak, bakarrik, erantzun zuzenak

42.-Erantzun okerra aipatu: Klasizismoan

- a) Ahotsetarako musika ia ez da lantzen
- b) Musika arrazionala da
- c) Musikari garrantzitsuenek musika-jenero guztiak erabiltzen dituzte
- d) Orkesta garatzen doa
- e) Musikaren purutasuna bilatzen da

43.-Klasizismo musikala kokatu data hauen artean.

- a) 1700-1800
- b) 1750-1900
- ☒ c) 1750-1810
- d) 1750-1850
- e) 1800-1900

44.-Erromantizismoa kokatu musikaren historiaren barruan.

- a) XVIII. mende bukaera
- ☒ b) XIX. mende hasiaran
- c) XIX. mende erdialdera
- d) XIX. mende bukaera
- e) XX. mende hasiera

45.-Erromantizismoko ezaugarriak aukeratu.

- a) Musikaren purutasuna adierazten da
- b) Sentimentuak adierazteko, musika bide egokena bezala azaltzen da
- c) Musika-jenero guztiak lantzen dira gehi sortzen diren forma libre batzuk
- d) a eta c zuzenak dira
- ☒ e) b eta c zuzenak dira

46.-Ondoko baitapenen artean, okerra dena esan: Erromantizismoan

- a) Handitasuna forma handien bidez adierazten da
- b) Barrukotasuna forma txikien bidez adierazten da
- ☒ c) Klasizismoan landutako formak baztertzen dira
- d) Orkesta handiagotzen da
- e) Pianoa instrumentu errege bezala azaltzen da

47.-Erromantizismoko ahotserako musikiaren barruan era berezian lantzen den musika-jeneroa, aurretik ez dena landu honako hau da:

- a) Opera
- b) Oratorioa
- c) Poema sinfoniko
- ☒ d) Lied
- e) Musika-errezitalak

48.-Nazionalismo musikala

- a) Iraultza Frantsesaren ondorio bat da
- ☒ b) Erromantizismoan lantzen diren ideien ondorio bat da
- c) Impresionismoak eskeintzen duen lengoia berriaren ondorio bat da
- d) XX. mendean ematen den independentismoaren ondorio bat da
- e) Musika tradizionalaren ondorio bat da

49.-Tonalitatearen eragina

- a) Klasizismoko bukaerarekin desagertzen da
- b) Erromantizismoarekin gero eta gutxiago azaltzen da
- c) Ideologia nazionalistarekin bat ez datorrenez baztertzen da
- ☒ d) Impresionismo musikalak baztertzen du
- e) XX. mendeko musikan ez da ematen

50.-Musika tradizionala

- a) Historiaren garai guztietan kontuan hartu da
- b) Musika kultoaren barruan XX. menderarte ez da erabiltzen
- c) Nazionalismoarekin material musikal bezala hasten da erabiltzen
- ☒ d) Musika erromantikoarekin kontuan hartzen hasten da
- e) Iraultza Frantsesak inposatzen du

64C DET 8
9A175